

NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

LATXAGA -ri erantzuna

LEITZAKO HERRIA ETA BERE PROBLEMAK

Oreako apaiza den D. José M. San Sebastián-Latxaga jaunak, DIARIO DE NAVARRA-ko azkeneko «NAFAR IZKUNTZA ORRIAN» (libeltzeoko hogetiazapikoa) artikuloz luze bat idatzi du, LEITZA BERRIA TA PATXI ARRAZOLA titulatzen duena.

Leitzan gehienak harrituta utzi gaituz artikuloa. Benetan harrigarria! Gauza asko esaten du. Baina gehienak oker eta batzuk maltzur. (Hori argi ta garbi hasi nere erantzuna LATXAGA jaunak). Dudarik gabe LATXAGAK ez dakizki ongi Leitzako herriak. Eta hori nik ederki ikusi nuen, elkarrekin hitzegin ge nuenen orain dela zortzi bat ilabete «ortxe» etxean. Baina nik ez ditzot kulpa gutxiak bere «informadoreari» botatzen. Ez LATXAGAK ere ba ditu pikxa batzuk. Ez dakizkin gauzetaz ez luke idatzi behar. Edo gainera, aroan lehenbizikoz ikusi «informadore» nor den berriz edozein leitzarreak errez eski asmatuko luke...

Baina goazen artikuloren arira. Nere uestez hiru parte bereziki genezake:

LEHENGOA. — Sarrera txiki bezela, Leitzako deskripzio paragrafo bat egiten du... orain dela zenbat ilabete TVE-K egin zuten antzokoa. Leitzako paraiso txiki bat balitz bezela... «Naparro osoan Leitzari gauza arrigarrak bateri bezela begiratzen diote», dio.

BIGARRENA. — Patxi Arrazola zenari buruz da. Eta hau da artikuloren zatirik haundiena. Hasten da esanez: «Erri au» (Leitzaz) zerbait ba da Patxi Arrazolari zor dio. Eta Patxi Arrazolaz hitz egiteaz baturatzen du berriro: «Leitzako gizasemeak dute

zoriona. Ori dana Patxi Arrazolaren emaitza da». Eskerririk LATXAGARI! Nonbati ez gaitu leitzarrok asko aintzat hartzen! Eta P. Arrazola berriz jainko bat bihurtzen du... eta Santiagok Konpostelan bost urtetan hartzen duen baiño inzentso gehiago botatzen dio! Ba ez, LATXAGA, ez. Gu leitzarrok P. Arrazola etorri baiño lehen zerbait ba ginen; eta hil ondoren ere zerbait ba gera; eta hura gabe ere zerbait izango ginen.

Ondorean LATXAGAK dio P. Arrazolari buruan sartu zizaiola «lantegial sortu behar zituela euskaldunentzat». Eto ez dago ukatzerik Leitzara Papelerak lana ekarri duela. Baina lana ekarri du, lanaren bitartez dirua irabazten duelako berak ere; (ea noiz hasten garan plusbaliaz hitzeginen paternalismoz ari beharrean). Eta hori garbi ikusten da beste lantegial batzuek ekarri nahi izandu dituztenean, ahal dituen eragozpenak jarri izan dituelako. Eta P. Arrazolak beraz personalizak eragoztu zuen (inpeditu zuen). Papelerak hazi berrira zenean oraindik, Ayuntamiento joanda, beste fabrika etorri nahi zuen bateri tokialde eta laguntzak ematea. Eta hay edozein aurren eusteko prest nago... eta euskaldunentzat lana sortzea bakarrik izandu balitz bere nahia, ez zeduken hori egin beharrik!

Gero P. Arrazolaren ahoan esaldi hau jartzen du LATXAGAK: «ategiñago zitziola euskaldun jator bat eraldun onena baiño», eta honengatik Papelerak nahiego zituela euskaldun eraldunak baiño. Alde batetik holako fra se txorrea ez zuen P. Arra-

zola nonahi esango; eta besa tetik ez da oso itxurazkoa: Papeleran euskaldunak langile eta eraldunak nagusi baitaude!

Aurreragoan, beti P. Arrazolaz, Latxagak dio: «OIAL DE jantoki ederra osatu zuen». Ez jauna. OIALDE leitzako guraso elkartearena da. Eta honek Caja de Ahorros-ek aurreratuarekin egin zuen. Orain Papelerak hamar urterako hartua dauka, zorrak pagatuzkotan... Baina guraso el kartea figuratuko bat bakarrik izandu bada Caja de Ahorros-tik prestamo bat ateratzeko esan dezatela argi eta erantzungo zaie garbi!

Ondorean LATXAGAK esaten du: «Langilleentzat etxeak egiten saiatu zan». Nongo etxeak dira horiek, LATXAGA jaunak?; eta irabazti gabe egin zituen eta irabaziaz? (Irabaziaz salatzea ez da oso harrizketoa), eta ez al dauka honek zer ikusirik LATXAGAREN artikuloren bultzaeran «kaiolak dirudi, ez biziak» diot horrek?

Gero Patronato Amazabal ateratzen da. P. Arrazolaren asmoak betetzeko egina bezela, txura zerukoi bat ematen, itxura zerukoiaren egileak. Hontaz luze hitzegino beharko nuke. Bakarrik gogoriatzeko ditzot LATXAGA-RI oraingo hontan hiru galdere: 1) Nongo dirutik irauten du Patronatoa honek? 2) Nor dira bertako agintariak? (ikusiko zuzu nola ez diren berdin). 3) Zergatik eman zate Diputazioari?

Urrena eskola profesionala, nekazari eskola, ikastola, konbentuk etxea, eskola konzentrazioa, batxilker eskola, biblioteka, Joseba Barriolaren ikintzak eta nekazari kooperatiba alpatzen di-



ra. Azkeneko hontaz esate baterako hau dio LATXAGAK: «Nekazari gaitz aurreratuarekin kooperatiba bat egin du gure Patxi Arrazolak». Kooperatibako nagusiel galdetu beharko hori egia den ala ez LATXAGAI! Eta es nuke hasi nahi gaitz hontaz trapu zaharrak ateratzen. Eta gauza hauek gutxiak P. Arrazolak eginak balira bezela gelditzen dira. «Hori dana P. Arrazolaren emaitza da». Ba, ez LATXAGA ez; ifioz ere! P. Arrazola orain urte bete hil zen, petxuko anjina. Ni ez noa ez bere alde ta ez bere kontra. Ba dut osaba apaiza bat bere oso adiskidea zena aspaldidanik. Baiña bakoiza bere tokian jarri behar da.

HIRUGARRENA. — Agertu ondorean, berak dionez, «Leitzan dauden gauza ederreneak», hasten da LATXAGA «hutsunetaz». Eta harritzekoa, bi bakarrik aurkitzen ditu; eta izen gainerat Bat, urbanismo! Al, al, LATXAGA jaunak; hemen ikusten da «informadorearen» be-

larrial Urbanismoa behar dela? Bai, behar da; baina Urbanismoak betiko lotzen du herria; herriaren geroa da; horen gaitz eta Leiza duen historiarengatik ezin ditke nolana! gaitz hontaz hitzegin, ergelgerikal (edo maltzurkeriak) esan nahi ez badira! Bai ote daki LATXAGAK orain urte batzuk Papelerak egindako «plan» bat atzera bota zela, herriko gehienek txarra zela izandu zutelako «exposición pública» ikustearen. Eta hau baiño lehen ere izanbila txiki bat izandu zela. Bai ote daki orain egin diren «norma subsidiaria» batzuek, (herriarrei oraindik erakutsi gabeak, beste bide batetik ikasi badituzte ere), Madrid-ko Tribunal Supremora Leitzako berehuan eta berrogei familik pleitu bat eraman duela. Iala herri gutxiak! Bai ote daki LATXAGAK herriko lurtatiketak egokitasun ez badu, herriko jaimbedel atek bisten bazaitzkie, «habitat» de laikoari kausorik egiten ez ba zaito, eta Informaziorik ez ba-

da... urbanismo onik ezin izan ditekela Gauza hauetako bakoitzaz erakutsiko diot nahiko liburua LATXAGARI, nahi badu!

Eta LATXAGAREN bigarren kezka nekazari eskola da... praktikarrik ez ote duten egiten, euskerarrik ez ote duten erabiltzen... Ederki dago kezkatzea! Zergatik ordea hortaz bakarrik? Profesional eskolan erabiltzen ote dute? Eta konzentrazioa? Eta batzarretan?...

Ba dira Leitzan beste majina bat problema: urbanismoa; Ayuntamiento tributatzaioa eta askatasuna; gazte-ldaren formazio nahia eta beharra; paternalismoaren agintza... eta gizonak, gizonak gizonak faltat!

PATXI ZAABLETA
PAKITO JOANDEGIKOA

AXULAR SARIA

LORTO ETA PRAILEA

Lorto bat ba zuen doña Korneliak Sukaldeko lehen ibiltzen zion. Han pasatzen zuen guzietan zerbait esanberrira izaten zion.

Egun batean neska bere sukaldeko lanetan ari zela saltatu zuen maian gainera eta jan zuen han zegoen txorixua.

Neska ohartu zelarik artu zuen lortoa eta sartu zion burua ur beroan.

Handik egun batzuetara lortoiari burua «soil-soila» jarri zion, lumak danak jua zaskion.

Eta egun batez leioan zegolarik han pasatzen zan prai- le bat bere ototzak eginak liburu leituaz... eta harrek ere burua soila zautan.

Lortioak hori ikusi zuelarik asi zan parrez:

—Ja, ja, ja!... egiten zuen.

Praile ohartu zan harreri egiten ziola eta begira jarri zitzaion lortioari; orduan lortok esan zion:

—Ja, ja!... txorixua jan duzu!

Miren Lourdes Maritxalar
Amabi urtekoa.
Lesaka

KONTUE

Bazen herri batean gizon bat lapurra aunitz gauz ebatzen zioten. Egun batian ebatsi nai zuen kopa elizekoa. Sartu zen Mezperatera eta ater zirelaik yendeak iyen zen pulpitoria eta han egon zen apez atera artaño. Apeza matso manso ater zion eta gizon hure gelditu zen loak hartua. Idetzarri zela ikusi zuen bi bela berak pizten, eta amesten zelaiko uestean arraskatu zituen begiak. Orduan ikusi zuen apez bat ateratzen aldarera eta alde guzietara begiratuaz galdigiten zela:

—Bada norbait Meza lagundu nai duenik?

Inor ez zuen erran eta herria gan zen biragunean elizara eta lapurra gan zen apezarengana bere biziiza guziera ebatsi zituen gauz guzietz aitorzera.

MARIA DOLORES GORTARI
ERRAZU. 99 urte.

KONTUE

Ni Luis Maria Bidegain, sortu nitzen urrian 1957-an Urriaren 20-an batayua egiteko aitak nai zuen beste pliska bat egin eta etxean sositik eta pensatu zuen iniza janda eta ikusi zituen arbol adar batean amabi udu eta nai zuten denak hil eta ezin pensatu nola arropa denak eta pensatu zuen posta bat kartutxoari sartzea eta tiratu ederrari eta adar hura araildu eta an amabi usak anaka sartu eta trabaturik gelditu ziran.

Pesta hura gan zen bertze aldeko mendira eta han asi aundi batean bihotzetik basurde bat pasatu zuan, basurdea amelia errekarra juan zan eta han bufeka putza agutu zuan eta han arrepatu zazpi kilo arrain. Karri zituen etxera, orduan bai egin omen zutela beste ederra, eta ogeren partez egin omen zuten bi dozena talo, arduaren partez barrika bat plier, pestrearen partez gazta eta kafeta etzen, bainan ongi beste ederra eragin gitudan.

LUIS MARIA BIDEGAIN
ARIZKUN. 14 urte.

LESAKA

langile eta bihotz oneko lakaña, gizona bai-zan, ta er aingerua, gizon guztien ueste-itak berak ere bazeuzkan. Itzal oneko osatu el baten labea, makiña bat ere de ezagutu zun; ta amebatek ezagutu genuen. Honekin laguru, harekin adiskidenaikin konpenteza alferri zan, denentzat bromate bazezukan. Nok etzuen otogutu? Inon ifioz, ifioz erre samatu al zuen?

Lesakar bikaina, pillotzari amorratua, euskaldun jator berak ez omen zuen arde «tinto» rik ezta «claret» rik bere ostatuan ateriko izituz «beltaik» eta «gorriak» be ordea ugari ordu guztietan.

«ADIXKIDE AVNDIAKIN ORDVAK LABVR» idatzi zenuen egun batez ostaluko liberan. Bai, Mikel, egia den adixkide aundia izandak balizifian, zurekin orduak laburrak egin zaizkigu.

Agur, Mikel. Gero arte!



Otsailaren 4.a. Goiz-goiztik hil ezkillak. Mikel Kasinokoa hil omen da.

Denak espero genuen. Bagenikigun aspalditxo hontan gaizki arkitzen zala. Ala ere, nori etzaio bihotza dardaratu?

Mikel Elizalde ioan zaigu, 46 urte zituelarik.

Senar zintzoa, aita on ta zorrotza, herriko seme sentsu,

IKUSLE

KONTU KONTARI EZTEIAK



Garai bateko ezteiak ikuskizun haundiko gauza izaten ziren Euskalerrian. Burundan, goizetik izaten zen meza, gero festa haundia egiten baizen bazkal aurrean. Andragaiaren etxean bildutako puska eta arrija egun hortan erematan ziren senargaiaren etxera. Idiak lotzen zituzten, eta kopetako gorri ponpoxekin apaindu. Bizkarretik manta eta kamaxilak (koskobillo eta faxe txirik betetako lepokoak ziren kamaxilak).

Gurdi gora goraino bete eta erematan zuten herri guzietan begitan. Senargai, askotan, gurdiari jarririk joaten zen. Bere elizako laguna izaten zen itzala.

Ez zen orai bezala ezkonberriak norabait joaterik, eta andragaiaren lagunak prestatzen zuten gela. Ezteiel eguna lan eguna zen berentzat. Askotan joaleak lotzen zizkieten ohe azpian. Giltzak askatu ere bai oherik lurerra erortzeko.

Erraillaren aldeko neskatx bat ezkondu omen zen eta sorginak ikusi ere bai, bere biziko egunik ederrean. Beste guziaz zorianak ematen zebiltzen eta, nun esaten diot sorginak.

—Txerria hiltzen den astea eta ezkondu ondoko urtia un hoberenak, Gero ikusiko dinau, gero!!!

Gaur izan baliz, gehienetan azertatuko egingo zuen sorginak.

EUSKALTZAINDIKO BATZARRA

«Iruña'ko Euskalerrian Adiskideak» Elkargoa


Hartu ditugu «Iruña'ko Euskalerrian Adiskideak» Elkargorekin Aldizkaria: «AXULAR» da izenez euskal izkribitzaile klasikorik onenaren oromen eta onorez, izan ere, Pedro Axular Urdazubi'ko herria gortu zuen 1558 urtean eta gure euskera zaharrean idatiz bere oroimena irauten du betiko.

«AXULAR» aldizkaria oso apain eta argia argitaratu da. Gai interesgarriak dakartzki, hauen artean apagarrienak dira: «Iruña'ko Ikastolak» berriak, Zubero'ko Maskaradak (Karlos Claheria jaunak idatzi) Jumelegeak, Nafarroko ekonomiar buruzko lana (Gaim Azkona jaunak prestatua), Euskal Mintzera... eta abar.

Esker guntz «Iruña'ko Euskalerrian Adiskideak» Elkargorekin Zuzendariari ematen dizkion argitzaile eder eta jakintsua hartzegatik, eta aurrera joan ditezela «Adiskideak» Nafarroa, eta Euskal Herriaren alde, desiatzen diogu.

Liburu hau laister argitaratuzkotan dago; Donosti'ko «Sociedad Guipuzkoana de Ediciones y Publicaciones» delakoak izanen da aterako duena.

Liburu honen zai gelditzen gera gauzak ikingarriak ekarriko dituelakoan gaude-ta.



refio jaunak bi mila.

Euskal Adiz (berboz) batua ren lanak aurrera ditzoaz eta izendatu zen Batzordeak irizti nagusi eta azken erabakia ematekotan dago. Garantzi haundiko gauza da euskera literario bato oso bat tinkatze-ko.

«Gotzon Garitanoaandia» Saria

Bilbo'ko AGUR izeneko Aldizkariak «Gotzon Garitanoandia» deritzan Sari bat antolatu zuen Bizkaia'ko euskaltzale-sutsu eta euskal idazlari famatu zenaren omenez.

Saria Manuel Estomba apez jaunak irabazi du «Eusko Arrano» izenburu daukan euskal nobelarengatik. Ogeitabost mila pezetako Saria jaso du. Estanis Urruzola jaunak bigarren Saria bereganatu zuen bere «Ezpalka» izeneko nobelarekin bost mila pezeta harturik.

«Perretxikoak» liburua

Bideraz idatzitako «Perretxikoak» gaiezko liburu bat ifiak Linazasoro jaunak prestatu du. Liburu hontan gure Euskal Herriko ziaz, eta onduen berri eta xehetasunak azaltzen dira batez ere gure umiei irakaste-ko. Gero eta zaletasun gehiago da gure artean onduen motak eta klaseak ongi ezagutu, iakin eta bereziteko.

Liburu honek ongi erakusten ditu perretxikuei dagozkoten berri guziaz irudi ikusgarri eta adigarriekin lagundurik.

Donosti'ko Caja de Ahorros de Guipuzkoa delakoan izan du argitara eman duena

Hemen ekarri dut «ere uestez, etxean izateko egokia delakoz.

Euskaltzaindiaren herriak

Euskal Akademiaren azken bileran beste erabaki apagarri artean hauek izan ziran nere uestez nabarmenak:

Urte hontako billera bereziak iru izanen dira: Bata Nafarroa, ez dakigu oraindik Auritz-en edo Iruñean ospatuko den (zergatik aurtan Fernin Irigarai «Larreko» zeneran izanetik egun urte betetzen bait dira eta omenaldia egitekotan bere sorherri zen Auritz'en (Burgete erderaz) egingo da. Beste bat Bilbon eta Irugarrena Artrasatan (Mondragón erderaz).

Aurtan ere lau Sariketaz izango dira: «Aitzaga», Teatro Saria, «Agirre», Nobela Saria, «Lizardi», Poesia Saria, eta «Xempelar», Bertso-paper Saria.

«Andima Ibinagabeitia» Saria Euskera Lagunen Elkartearen izenaren emana (Caracas en dagona), Luis Elgia Retolaza jaunak lehenengoa irabazi du bere NEURRITZIA (Geometria) lanarengatik, eta Benantzio Otaegi jaunak bigarrena bere GIZA JAKINTZA (Antropologia) lanarengatik.

Euskal Akademiaren Liburu-

EGUNGO IDAZLEEN ANTOLOGIA BAT

Agertu berri da, bizi diran euskal idazle askoen Lorategi edo Antologia bat. Irurogei izkribitzaile idazki laburrak sartzen dira. Sanmartin eta Basauri euskaltzainek osatu liburu jorrian. «Hegatsez» izen arkaikoa daruma liburuetik eta lumaz edo halako zerbait esan nai izan bide zuen LEIZARRAGA zaharrak, izi birri horrekin.

Itxaropena Argitaldaria, 371 orrialdeko bilduma bat agertu du, bertan dirala, oraingo idazle asko (ez denak) sartzen: altabada, batzuen tokia, beste idazle garbi eta errikoiek airoki beteko zutela gaude; Abeleze, Gregorio Eppherre, Larre, G. Lantziri, Zabala eta halakok; bainan sartu direnekin ere, naiko andia da liburua gelditu. Presentatzen diran 60-en artikuloen artean, batzu onak dira, gaien aldetik oraitariak eta izkuntzarenetik berri, garbiak. Autespena egitea itsusi da, bai zailla ere, baina aparragarrienak, hauek iduri zaizkigu: bizkaieraz, Akesolo, Unamunoren biziiz alderdi batzuekin; Charritton, kulturaren balioa eta gure artek eskasia, lan jakituen batean, lapurtar euskera sendoa; Diharce eta Basterretxea, ipuin bana; azken honek, hungaro edo rusoen antzeko kontu jostakin eta realista bat. Bozas-Urrutia, gizonaren etorki urruna kontatzen du, eta oraiterainoko bilaketzea edo eboluzioa, gamelu-aren zertzelada batzuekin batera.

Arrue, sukalde, janari eta adieratze mintzo zaigu. P. Altunak, Giltza haurrak izeneko neskatza baten Diario edo egunkari baten gisako irakurgai sakona. Viena hiriko etxe eta familia beharrez batean, egunetik egunera gertatzen diran gora behera penagarriak, etxeko alabaren kuadrono batetik artuak almalaba pobret eta dokakabe batuzten bizimodu gordin eta hitsak, ximpleki hondatuak.

Artikulo obereetatik bat, Lafittek dakarra, gure Literatura zertan dagoen espilatuz, eta zer beharko genuen orain-

A. APAT-ETXEBARNE